1.– Con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones, deberán aprobarse las normas que establezcan las bases reguladoras de concesión en los términos establecidos en esta Norma Foral.

Lo dispuesto en este apartado no será de aplicación a los procedimientos regulados en el artículo 27 de esta Norma Foral.

2.– Diru laguntza mota bakoitzaren oinarri arautzaileak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

3.– Gainera, diru laguntza bat emateko honako baldintzak bete beharko dira:

a) Organo administratibo emaileak horretarako eskumena izatea.

b) Kreditu egoki eta nahikoa egotea diru laguntza emateak dakartzan obligazio ekonomikoei aurre egiteko.

c) Diru laguntza emateko prozedura aplikagarri diren arauei jarraituta izapidetzea.

d) Eduki ekonomikoa duten egintza administratiboak fiskalizatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko Foru Arauan eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritakoaren arabera.

e) Organo eskudunak gastua onartzea.

*9. artikulua.*– Diru laguntzak emateko organo eskudunak.

1.– Foru aldundiaren esparruan, diputatu nagusia, Diputatuen Kontseilua eta foru diputatuak dira diru laguntzak emateko organo eskudunak, betiere uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, ezarritako eran.

2.– Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ekitaldi bakoitzeko aurrekontu orokorrei buruzko foru arauak zehaztuko du zein organo diren eskudunak foru arau honek 20. artikuluaren 3 apartatuko c) letran aurreikusten dituen banakako diru laguntzak emateko.

3.– Foru organismo autonomoen esparruan, sorrerako arauan edo beren estatutuetan ezartzen diren organoek edo, haien ezean, zuzendaritza organoek emango dituzte diru laguntzak.

*10. artikulua.*– Pertsona onuradunak.

1.– Diru laguntza emateko arrazoi den jarduera egin behar duen pertsona edota diru laguntza jasotzea zilegi egiten duen egoeran dagoena izango da diru laguntzen onuraduna.

2.– Onuraduna pertsona juridikoa denean, eta oinarri arautzaileetan hala jasota badago, pertsona juridikoaren bazkideak ere onuraduntzat hartuko dira, diru laguntza emateko aintzat hartutako jarduera guztiak edo hauen zati bat pertsona juridikoaren izenean egiteko konpromisoa hartzen dutenean.

3.– Oinarri arautzaileetan espresuki aurreikusten denean, onuradunak izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, publiko zein pribatuak, ondasun erkidegoak edo beste edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bananduak, nortasun juridikorik izan ez

2.– Las bases reguladoras de cada tipo de subvención se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3.– Adicionalmente, el otorgamiento de una subvención debe cumplir los siguientes requisitos:

a) La competencia del órgano administrativo concedente.

b) La existencia de crédito adecuado y suficiente para atender las obligaciones de contenido económico que se derivan de la concesión de la subvención.

c) La tramitación del procedimiento de concesión de acuerdo con las normas que resulten de aplicación.

d) La fiscalización de los actos administrativos de contenido económico, en los términos previstos en la Norma Foral de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa y demás normativa que resulte de aplicación.

e) La aprobación del gasto por el órgano competente para ello.

*Artículo 9.*– Órganos competentes para la concesión de subvenciones.

1.– En el ámbito de la Diputación Foral, el Diputado o Diputada General, el Consejo de Diputados, y los Diputados y Diputadas Forales, son los órganos competentes para la concesión de subvenciones conforme a lo establecido en la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2.– La Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa de cada ejercicio determinará los órganos competentes para conceder las subvenciones individualizadas previstas en la letra c) del apartado 3 del artículo 20 de esta Norma Foral.

3.– En el ámbito de los organismos autónomos forales, la concesión de subvenciones se efectuará por los órganos que determine su norma de creación o sus estatutos o, en su caso, por sus órganos rectores.

*Artículo 10.*– Personas beneficiarias.

1.– Tendrá la consideración de beneficiaria de subvenciones la persona que haya de realizar la actividad que fundamentó su otorgamiento o que se encuentre en la situación que legitima su concesión.

2.– Cuando la beneficiaria sea una persona jurídica, y siempre que así se prevea en las bases reguladoras, tendrán igualmente la consideración de beneficiarios, los miembros asociados de la persona beneficiaria que se comprometan a efectuar la totalidad o parte de las actividades que fundamentan la concesión de la subvención en nombre y por cuenta de la primera.

3.– Cuando se prevea expresamente en las bases reguladoras, podrán acceder a la condición de beneficiarias las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado

arren, baldin eta proiektuak, jarduerak edo jokaerak aurrera eramateko gai badira edota diru laguntza emateak eskatzen duen egoeran badaude.

Pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, publiko zein pribatuak, nortasunik gabekoak direnean, bai eskaeran bai diru laguntza emateko ebazpenean berariaz adieraziko da zein exekuzio konpromiso hartu dituen elkarteko kide bakoitzak eta zein den horietako bakoitzarengatik aplikatu beharreko diru laguntzaren zenbatekoa, beraiek ere pertsona onuraduntzat hartuko baitira. Edonola ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, elkarteari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoa izango duena. Foru arau honen 37. eta 54. artikuluetan aurreikusitako preskripzio epea igaro arte elkartea ezingo da desegin.

*11. artikulua.–* Entitate laguntzaileak.

1.– Ondoko hauek izango dira entitate laguntzaileak: diru laguntzarekin lotutako ondorio guztietarako organo emailearen izenean eta beraren kontura arituta, pertsona onuradunei fondo publikoak eman eta banatzen dizkietenak oinarri arautzaileetan hala ezarrita dagoenean, edota jasotako fondoak aldez aurretik eman eta banatu gabe diru laguntzaren kudeaketan laguntzaile direnak. Fondo horiek ez dira inola ere entitateon ondarearen parte izango.

Izaera horretakoak izango dira, baita ere, onuradun izendatuta egonik, Europar Batasuneko araudiaren arabera aurreko paragrafoan zerrendatutako zereginak bakarrik beren gain hartu dituzten pertsonak.

2.– Gainerako herri administrazioek, herri administrazioen erabateko edo gehiengo partaidetza duten merkataritza sozietateek, zuzenbide publikoko organismo edo enteek, eta toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen elkarteek Foru Aldundiaren eta foru organismo autonomoen entitate laguntza gisa jardun ahal izango dute. Orobat, kaudimen eta eraginkortasunari buruz ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten gainerako pertsona juridiko publiko zein pribatuak ere entitate laguntzaileak izaten ahalko dira.

Era berean, Foru Aldundia eta foru sektore publikoko beste entitateak gainerako herri administrazioen entitate laguntzaile gisa aritu ahal izango dira.

*12. artikulua.–* Pertsona onuradun edo entitate laguntzaile izateko betekizunak.

1.– Diru laguntza emateko arrazoi den egoeran dauden pertsona edo entitateak, edota oinarri arautzaileetan eta deialdian aurreikusitako zirkunstantziak biltzen dituztenak izan daitezke pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak.

que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos, actividades o comportamientos o se encuentren en la situación que motiva la concesión de la subvención.

Cuando se trate de agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sin personalidad, deberán hacerse constar expresamente, tanto en la solicitud como en la resolución de concesión, los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación, así como el importe de subvención a aplicar por cada uno de ellos, que tendrá igualmente la consideración de persona beneficiaria. En cualquier caso, deberá nombrarse una persona representante o apoderada única de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como persona beneficiaria, corresponden a la agrupación. No podrá disolverse la agrupación hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción previsto en los artículos 37 y 54 de esta Norma Foral.

*Artículo 11.–* Entidades colaboradoras.

1.– Será entidad colaboradora aquella que, actuando en nombre y por cuenta del órgano concedente a todos los efectos relacionados con la subvención, entregue y distribuya los fondos públicos a las personas beneficiarias cuando así se establezca en las bases reguladoras, o colabore en la gestión de la subvención sin que se produzca la previa entrega y distribución de los fondos recibidos. Estos fondos, en ningún caso, se considerarán integrantes de su patrimonio.

Igualmente tendrán esta condición las que, habiendo sido denominadas personas beneficiarias conforme a la normativa comunitaria tengan encomendadas, exclusivamente, las funciones enumeradas en el párrafo anterior.

2.– Podrán actuar como entidades colaboradoras de la Diputación Foral y de los organismos autónomos forales, el resto de Administraciones Públicas, las sociedades mercantiles participadas íntegra o mayoritariamente por las Administraciones Públicas, los organismos o entes de derecho público y las asociaciones a que se refiere la disposición adicional quinta de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local. También podrán ser entidades colaboradoras las demás personas jurídicas públicas o privadas que reúnan las condiciones de solvencia y eficacia que se establezcan.

De igual forma, la Diputación Foral y las demás entidades integrantes del sector público foral podrán actuar como entidades colaboradoras del resto de Administraciones Públicas.

*Artículo 12.–* Requisitos para obtener la condición de persona beneficiaria o entidad colaboradora.

1.– Podrán obtener la condición de persona beneficiaria o entidad colaboradora las personas o entidades que se encuentren en la situación que fundamenta la concesión de la subvención o en las que concurran las circunstancias previstas en las bases reguladoras y en la convocatoria.

2.– Ondorengo zirkunstantzia hauetako batean dauden pertsona edo entitateak ezin izango dira izan foru arau honetan arautzen diren diru laguntzen pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak, non eta diru laguntzaren izaeragatik beragatik ez den bere araudi erregulatzailean horrelakorik salbuesten:

a) Epai irmoaren bidez diru laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzera kondenatuak izan direnean.

b) Konkurtso deklarazioa eskatuta daukatenean, edozein prozeduratan kaudimengabekotzat deklaratuak izan direnean, konkurtsoan deklaratuta daudenean, esku-hartze judizialaren menpe daudenean, edo Konkurtso Legearen arabera ezgaituak gertatu direnean konkurtsoaren kalifikazio epaian jarritako ezgaitasun epea orain amaitu gabe.

c) Errudun deklaratzea ekarri duen arrazoiarengatik, Administrazioarekin egindako edozein kontratu irmo suntsiaraztea eragin dutenean.

d) Pertsona fisikoa, merkataritzako sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak bateraezintasun kasuetakoren batean sartuta daudenean gai horiei buruzko arauetan aurreikusitako eran.

e) Zerga obligazioak edo Gizarte Segurantzarekikoak bete gabe dauzkatenean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikagarria izango ematen diren diru laguntzak Gipuzkoako gizarte zerbitzuen sistemak babestutako kolektiboetan dauden pertsona fisikoei zuzenduta daudenean.

f) Beren zerga egoitza erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurralde batean dagoenean.

g) Diru laguntzak itzuli behar izateagatik sortutako obligazioak ordaindu gabe dituztenean.

h) Sexu diskriminazioa dela-eta, zigor administratibo edo penalen bat jaso dutenean, zigorrean ezarritako epean zehar.

i) Ebazpen irmoaren bidez zigortuak izateagatik diru laguntzak ezin eskuratu ditzaketenean foru arau hau edo martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorra aplikatuta.

j) Laneko arriskuen prebentzioaren gaian urraketa larriak edo oso larriak egiteagatik zigortuak izan direnean zigor administratibo edo penal batekin.

Foru arau honen 10. artikuluko 3 apartatuan aurreikusitako elkarteak ezingo dira diru laguntzen onuradun izan bere bazkideetako edozein aurreko debekuetakoren batean sartuta dagoenean.

3.– Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak 4. artikuluaren 5 eta 6

2.– No podrán obtener la condición de persona beneficiaria o entidad colaboradora de las subvenciones reguladas en esta Norma Foral las personas o entidades en quienes concurra alguna de las circunstancias siguientes, salvo que por la naturaleza de la subvención se exceptúe por su normativa reguladora:

a) Haber sido condenadas mediante sentencia firme a la pena de pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas.

b) Haber solicitado la declaración de concurso, haber sido declaradas insolventes en cualquier procedimiento, hallarse declaradas en concurso, estar sujetas a intervención judicial o haber sido inhabilitadas conforme a la Ley Concursal sin que haya concluido el periodo de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.

c) Haber dado lugar, por causa de la que hubiesen sido declaradas culpables, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.

d) Estar incursa la persona física, las personas administradoras de las sociedades mercantiles o quienes ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de incompatibilidades, en los términos establecidos en la normativa que regule estas materias.

e) No hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social.

No será aplicable lo dispuesto en el párrafo anterior a las subvenciones dirigidas a las personas físicas integradas en los colectivos protegidos por el sistema de servicios sociales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

f) Tener la residencia fiscal en un país o territorio calificado reglamentariamente como paraíso fiscal.

g) No hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.

h) Haber sido objeto de sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo, durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción.

i) Haber sido sancionada mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones según esta Norma Foral o la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria.

j) Haber sido objeto de sanción administrativa o penal por infracción grave o muy grave en materia de prevención de riesgos laborales.

No podrán acceder a la condición de beneficiarias las agrupaciones previstas en el segundo párrafo del apartado 3 del artículo 10 de esta Norma Foral cuando concurra alguna de las prohibiciones anteriores en cualquiera de sus miembros.

3.– En ningún caso podrán obtener la condición de beneficiarias o entidades colaboradoras de las subven-

apartatuetan aurreikusitako debeku arrazoietako batean sartuta dauden elkarteak ezin izango dira inola ere izan foru arau honetan araututako diru laguntzen pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak.

1/2002 Lege Organikoaren 30.4. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik elkarte baten inskripzio prozedura administratiboa eteten bada, delako elkarte hori ere ezin izango da pertsona onuraduna edo entitate laguntzailea izan, harik eta ebazpen judizial irmo baten ondorioz dagokion erregistroan inskribatzeko aukera ematen zaion arte.

4.– Bai kideak onartzeko prozesuan bai beren funtzionamenduan sexu diskriminaziorik egiten duten elkarte edo antolakundeak eta, orobat, sexu diskriminaziorik sor dezaketen jardueretan aritzen direnak ezin izango dira onuradunak izan, sexuen arteko ezberdintasunak zuzentzen diren kasuetan izan ezik.

5.– Artikulu honetako 2 apartatuko b), d), e), f) eta g) letretan eta 3 eta 4 apartatuetan jasotzen diren debekuak automatikoki hartuko dira aintzat, eta bere horretan iraungo dute kasu bakoitzean arrazoi diren zirkunstantziak gertatzen diren bitartean.

6.– Artikulu honetako 2 apartatuko a), h) eta i) letretan jasotzen diren debekuak automatikoki hartuko dira aintzat. Epai edo ebazpen irmo batek erabakiko du zein den debekuaren hedadura. Halakorik ezean, hedadura bere unean ezartzen den prozeduraren bidez finkatuko da, baina debekua epai irmo batetik ez badator, ezin izango da bost urtetik gorakoa izan.

7.– Artikulu honetako 2 apartatuko c) letran jasota dagoen debekua aintzat hartu eta bere hedadura zehazteko, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzekoak, 21. artikuluan ezarritakoaren arabera jokatuko da 20.c) artikuluarekin lotuta.

8.– Artikulu honetako 2, 3 eta 4 apartatuetan aipatu diren eta onuradun edo entitate laguntzaile izatea eragozten duten debeku egoeretan ez daudela frogatzeko, pertsona edo entitateek bide hauek erabili ahal izango dituzte: lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu transmisioak, dagokion araudian ezarritakoaren arabera, edo bestela, ziurtagiri administratiboa, kasuan kasu. Ziurtagiri hori agintari eskudunak egiterik ez badu, haren ordez erantzukizun aitorpena aurkeztu ahal izango da, agintari administratibo edo fede-emaile publiko baten aurrean egina.

*13. artikulua.*– Pertsona onuradunen obligazioak.

1.– Pertsona onuradunak obligazio hauek ditu:

a) Diru laguntza emateko aintzat hartu den proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo jokaera hartzea.

ciones reguladas en esta Norma Foral, las asociaciones incursas en las causas de prohibición previstas en los apartados 5 y 6 del artículo 4 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación.

Tampoco podrán obtener la condición de beneficiarias o entidades colaboradoras las asociaciones respecto de las que se hubiera suspendido el procedimiento administrativo de inscripción por encontrarse indicios racionales de ilicitud penal, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 30.4 de la Ley Orgánica 1/2002, en tanto no recaiga resolución judicial firme en cuya virtud pueda practicarse la inscripción en el correspondiente registro.

4.– Salvo en los supuestos en que se busque un efecto de corrección de desigualdades entre sexos, no podrán obtener la consideración de beneficiarias aquellas asociaciones y organizaciones que discriminen por razón de sexo en su proceso de admisión o en su funcionamiento, ni aquéllas que realicen algún tipo de actividad que sea discriminatoria por razón de sexo.

5.– Las prohibiciones contenidas en las letras b), d), e), f) y g) del apartado 2 y en los apartados 3 y 4 de este artículo se apreciarán de forma automática y subsistirán mientras concurran las circunstancias que, en cada caso, las determinen.

6.– Las prohibiciones contenidas en las letras a), h) e i) del apartado 2 de este artículo se apreciarán de forma automática. El alcance de la prohibición será el que determine la sentencia o resolución firme. En su defecto, el alcance se fijará de acuerdo con el procedimiento que se determine, sin que pueda exceder de cinco años en caso de que la prohibición no derive de sentencia firme.

7.– La apreciación y alcance de la prohibición contenida en la letra c) del apartado 2 de este artículo se determinará de acuerdo con lo establecido en el artículo 21, en relación con el artículo 20.c) del texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por el Real Decreto Legislativo 2/2000, de 16 de junio.

8.– La justificación por parte de las personas o entidades de no estar incursos en las prohibiciones para obtener la condición de persona beneficiaria o entidad colaboradora, señaladas en los apartados 2, 3 y 4 de este artículo, podrá realizarse mediante testimonio judicial, certificados telemáticos o transmisiones de datos, de acuerdo con lo establecido en la normativa correspondiente o mediante certificación administrativa, según los casos. Cuando esta certificación no pueda ser expedida por la autoridad competente, podrá ser sustituida por una declaración responsable otorgada ante una autoridad administrativa o fedatario público.

*Artículo 13.*– Obligaciones de las personas beneficiarias.

1.– Son obligaciones de la persona beneficiaria:

a) Ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones.

b) Beharkizunak eta baldintzak betetzen direla eta diru laguntza eman edo jasotzeko aintzat hartutako jarduera eta helburua egin eta lortu dela frogatzea, diru laguntza ematen duen organoaren aurrean edo, hala badagokio, entitate laguntzailearen aurrean.

c) Organo emaileak edo, kasuan kasu, entitate laguntzaileak egin beharreko egiaztapen jarduketei men egitea eta, orobat, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuak nahiz kanpoko kontrol organo eskudunek diru laguntzen inguruan egin ditzaketen egiaztapen eta finantza kontrolen mende geratzea.

d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko bestelako diru laguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak lortu izanaren berri ematea organo emaileari edo entitate laguntzaileari.

Ahal bezain laster jakinarazi beharko da hori, eta betiere jasotako fondoei eman zaien erabilera justifikatu baino lehen.

e) Zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzea, arauz erabakiko den eran, diru laguntza emateko ebazpen proposamena eman aurretik.

Obligazio hori ez da exijituko diru laguntzak jasotzen dituztenak Gipuzkoako gizarte zerbitzuen sistemak babesten dituen kolektiboetako pertsona fisikoak direnean.

f) Pertsona onuradunak diru laguntza jaso eta aplikatu duela adieraztea, aplikagarri zaion merkataritza edo zerga legeriaren arabera eta, hala bada, oinarri arautzaileei jarraituta, eraman behar dituen kontabilitate eta erregistro liburuetan.

g) Jasotako fondoen erabilera frogatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketak egin dakizkiekeen neurrian.

h) Foru arau honen 17. artikuluko 3 apartatuan jasotako zabalkunde neurriak hartzea.

i) Jasotako fondoak foru arau honen 35. artikuluan adierazitako kasuetan itzultzea.

j) Diru laguntza emateko kontuan hartu den zirkunstantzia batean aldaketa objektibo nahiz subjektiborik gertatuz gero, organo emaileari edo entitate laguntzaileari jakinaraztea.

2.– Otsailaren 5eko 1/1988 Legeak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarenak, 2. artikuluaren 1 apartatuko b) letran aipatzen duen kontrola diru laguntza ematen duen organoari edo, kasuan kasu, entitate laguntzaileari artikulu honen 1 apartatuko b) letraren arabera egin behar zaion justifikazioa bete dela egiaztatuz egingo da.

b) Justificar ante el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

c) Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero de subvenciones que puedan realizar el Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas y los órganos de control externo competentes.

d) Comunicar al órgano concedente o la entidad colaboradora la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas.

Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

e) Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, en la forma que se determine.

Esta obligación no será exigible en el supuesto de subvenciones dirigidas a personas físicas integradas en los colectivos protegidos por el sistema de servicios sociales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

f) Dejar constancia de la percepción y aplicación de la subvención en los libros de contabilidad o en los libros de registro que, en su caso, tenga que llevar la persona beneficiaria de acuerdo con la legislación mercantil o fiscal que le sea aplicable y, en su caso, en las bases reguladoras.

g) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

h) Adoptar las medidas de difusión contenidas en el apartado 3 del artículo 17 de esta Norma Foral.

i) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 35 de esta Norma Foral.

j) Comunicar a la entidad concedente o a la entidad colaboradora, en su caso, la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiera sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

2.– El control a que se refiere la letra b) del apartado 1 del artículo 2 de la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, se instrumentará a través del cumplimiento de la obligación de justificación al órgano concedente o entidad colaboradora, en su caso, de la subvención, regulada en la letra b) del apartado 1 de este artículo.

*14. artikulua.*– Entitate laguntzaileen obligazioak.

1.– Entitate laguntzaileak obligazio hauek ditu:

a) Diru laguntzaren oinarri arautzaileetan eta entitate emailearekin sinaturiko hitzarmenean ezarritako irizpideen arabera jasotako fondoak pertsona onuradunei ematea.

b) Diru laguntza emateko beharkizun eta baldintzak benetan betetzen direla eta, orobat, hura eman edo jasotzeko aintzat hartutako jarduera eta helburua egin eta lortu dela egiaztatzea.

c) Diru laguntza ematen duen organoari jasotako fondoak benetan eman direla frogatzea, eta, pertsona onuradunek aurkezten dituzten frogagiriak aurkeztea.

d) Organo emaileak fondo horien kudeaketaz egin ditzakeen egiaztapen jarduketei men egitea, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuak nahiz kanpoko kontrol organo eskudunek diru laguntzen inguruan egin ditzaketen bestelako egiaztapen eta finantza kontrolen mende geratzea, eta jarduketa horietan eskatzen zaien informazioa ematea.

2.– Foru Aldundiak edo foru organismo autonomoek entitate laguntzaile gisa jarduten dutenean, beren menpeko organo eskudunek gauzatuko dituzte aurreko apartatuko d) letran aipatutako egiaztapen eta kontrol jarduketak, Europar Batasuneko kontrol organoen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren eskumenak eragotzi gabe.

*15. artikulua.*– Lankidetza hitzarmena.

1.– Diru laguntza ematen duen organoaren eta entitate laguntzailearen artean lankidetza hitzarmena izenpetuko da, entitate laguntzaileak bete behar dituen baldintzak eta obligazioak arautzeko.

2.– Lankidetza hitzarmenak ezin izango du lau urtetik gorako indarraldirik eduki, nahiz eta hitzarmenean bertan indarraldia aldatu eta luzatzea aurreikusi ahal izango den, bi aldeak ados jarrita, hitzarmena amaitu baino lehen. Luzapen guztiak hartuta, horien iraupenak ezingo du gainditu hasierako indarraldiarena, eta, guztira, lankidetza hitzarmenaren iraupena ez da inoiz ere sei urtetik gorakoa izango.

3.– Lankidetza hitzarmenak honako puntuak jaso beharko ditu gutxienez:

a) Lankidetzaren eta entitate laguntzailearen xedearen definizioa.

b) Entitate laguntzaileak kudeatuko dituen diru laguntzei buruzko araudiaren identifikazioa.

c) Lankidetza hitzarmenaren iraupena.

d) Entitate laguntzailearen alde ezartzen den konpentsazio ekonomikoa, halakorik badago.

*Artículo 14.*– Obligaciones de las entidades colaboradoras.

1.– Son obligaciones de la entidad colaboradora:

a) Entregar a las personas beneficiarias los fondos recibidos de acuerdo con los criterios establecidos en las bases reguladoras de la subvención y en el convenio suscrito con la entidad concedente.

b) Comprobar, en su caso, el cumplimiento y efectividad de las condiciones o requisitos determinantes para su otorgamiento, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

c) Justificar la entrega de los fondos percibidos ante el órgano concedente de la subvención y, en su caso, entregar la justificación presentada por las personas beneficiarias.

d) Someterse a las actuaciones de comprobación que respecto de la gestión de dichos fondos pueda efectuar el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero de subvenciones que puedan realizar el Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas y los órganos de control externo competentes, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de dichas actuaciones.

2.– Cuando la Diputación Foral o los organismos autónomos forales actúen como entidades colaboradoras, las actuaciones de comprobación y control a que se hace referencia en la letra d) del apartado anterior se llevarán a cabo por sus correspondientes órganos, sin perjuicio de las competencias de los órganos de control comunitarios y de las del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

*Artículo 15.*– Convenio de colaboración.

1.– Se formalizará un convenio de colaboración entre el órgano concedente y la entidad colaboradora en el que se regularán las condiciones y obligaciones asumidas por ésta.

2.– El convenio de colaboración no podrá tener un plazo de vigencia superior a cuatro años, si bien podrá preverse en el mismo su modificación y su prórroga por mutuo acuerdo de las partes antes de la finalización de aquél. La duración total de las prórrogas no podrá ser superior a la vigencia del periodo inicial y en conjunto la duración total del convenio de colaboración no podrá exceder de seis años.

3.– El convenio de colaboración deberá contener, como mínimo, los siguientes extremos:

a) Definición del objeto de la colaboración y de la entidad colaboradora.

b) Identificación de la normativa reguladora de las subvenciones que van a ser gestionadas por la entidad colaboradora.

c) Plazo de duración del convenio de colaboración.

d) Compensación económica que, en su caso, se fije a favor de la entidad colaboradora.

4.– Diru laguntzak modu egokian kudeatzeko beharrezkoa irizten bada, honako apartatuok ere jaso ahal izango dira hitzarmenean:

a) Organo administratibo emailearen alde beharrezkoak izan daitezkeen berme neurriak, horiek eratzeko bideak eta deuseztatzeko prozedura.

b) Diru laguntzak kudeatzeko prozeduraren fase desberdinetan entitate laguntzaileak bete eta betearazi behar dituen beharkizunak.

c) Lankidetza fondo publikoak banatzeko egiten bada, zehaztu egin beharko da zein epetan emango zaizkion entitate laguntzaileari fondoak eta zein baldintza bete behar dituen jasotako fondoen gordailuak pertsona onuradunei eman arte.

d) Lankidetza fondo publikoak banatzeko egiten bada, organo administratiboak emandako diru laguntzak pertsona onuradunei entregatzeko baldintzak jasoko dira.

e) Nola frogatu behar duten pertsona onuradunek diru laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituztela, eta zeintzuk diren emandako diru laguntza egiaztatzeko betekizunak.

f) Pertsona onuradunek diru laguntzak jasotzeko agertutako frogagiriak zein epetan eta nola aurkeztu behar diren, eta lankidetza fondo publikoak banatzeko egiten bada, nola eta zein epetan frogatu behar duen entitate laguntzaileak pertsona onuradunei fondoak eman dizkiela.

g) Diru laguntza behar bezala justifikatzea eta ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea errazteko, entitate laguntzaileak eraman behar dituen kontabilitate liburu eta erregistroak.

h) Fondoak itzultzeko betebeharra dagoela, baldin eta diru laguntza emateko ezarritako baldintza eta obligazioak betetzen ez badira eta, betiere, foru arau honen 35. artikuluan jasotako kasuetan.

i) Entitate laguntzailea nahitaez gelditzen dela foru arau honek 14. artikuluaren 1 apartatuko d) letran aurreikusten dituen egiaztapen eta kontrol jarduketen mende.

5.– Beste herri administrazio batzuek edo berauei lotutako edo beren menpeko organismo publikoek Foru Aldundiaren edo foru organismo autonomoen laguntzaile gisa jarduten dutenean, bidezkoak diren hitzarmenak izenpetuko dira haiekin, eta hitzarmen horietan fondoak banatu eta emateko beharkizunak, eta kontuen berri eman eta justifikatzeko irizpideak zehaztuko dira.

Era berean jokatuko da, baita ere, beste herri administrazio batzuek edo berauei lotutako edo beren menpeko organismo publikoek emandako diru laguntzetan Foru Aldundiak eta foru organismo autonomoek entitate laguntzaile gisa jarduten dutenean.

4.– En la medida en que se considere necesario para una adecuada gestión de las subvenciones, en el convenio se podrán incluir los siguientes apartados:

a) Medidas de garantía que sea preciso constituir a favor del órgano administrativo concedente, medios de constitución y procedimiento de cancelación.

b) Requisitos que debe cumplir y hacer cumplir la entidad colaboradora en las diferentes fases del procedimiento de gestión de las subvenciones.

c) En caso de colaboración en la distribución de los fondos públicos, determinación del periodo de entrega de los fondos a la entidad colaboradora y de las condiciones de depósito de los fondos recibidos hasta su entrega posterior a las personas beneficiarias.

d) En caso de colaboración en la distribución de los fondos públicos, condiciones de entrega a las personas beneficiarias de las subvenciones concedidas por el órgano administrativo concedente.

e) Forma de justificación por parte de las personas beneficiarias del cumplimiento de las condiciones para el otorgamiento de las subvenciones y requisitos para la verificación de la misma.

f) Plazo y forma de la presentación de la justificación de las subvenciones aportada por las personas beneficiarias y, en caso de colaboración en la distribución de los fondos públicos, de acreditación por parte de la entidad colaboradora de la entrega de los fondos a las personas beneficiarias.

g) Determinación de los libros y registros contables específicos que debe llevar la entidad colaboradora para facilitar la adecuada justificación de la subvención y la comprobación del cumplimiento de las condiciones establecidas.

h) Obligación de reintegro de los fondos en el supuesto de incumplimiento de los requisitos y obligaciones establecidos para la concesión de la subvención y, en todo caso, en los supuestos regulados en el artículo 35 de esta Norma Foral.

i) Obligación de la entidad colaboradora de someterse a las actuaciones de comprobación y control previstas en la letra d) del apartado 1 del artículo 14 de esta Norma Foral.

5.– Cuando otras Administraciones Públicas, o los organismos públicos vinculados o dependientes de las mismas, actúen como entidades colaboradoras de la Diputación Foral o de los organismos autónomos forales se suscribirán con aquéllas los correspondientes convenios en los que se determinen los requisitos para la distribución y entrega de los fondos, los criterios de justificación y de rendición de cuentas.

De igual forma, y en los mismos términos, se procederá cuando la Diputación Foral y los organismos autónomos forales actúen como entidades colaboradoras respecto de las subvenciones concedidas por otras Administraciones Públicas o por los organismos públicos vinculados o dependientes de las mismas.

6.– Entitate laguntzaileak zuzenbide pribatuko pertsonak direnean, lehendabizi publizitate, lehiakortasun, berdintasun eta ez-diskriminazio printzipioak aplikatuta hautatuko dira, eta lankidetza hitzarmen bidez formalizatuko da, non eta lankidetzaren xedeagatik ez den bete-betean aplikagarria ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duena.

Kontratuak artikulu honen 3 apartatuan aurreikusitako gutxieneko edukia jaso beharko du, bai eta kontratu administratiboei buruzko arauekin bat etorriz aginduzkoa den gainerako edukia ere. Gainera, kontratuan espresuki adieraziko da kontratistak foru arau honetan entitate laguntzaileentzat ezartzen diren gainerako obligazioak izango dituela.

Merkataritza sozietate publikoak apartatu honetan xedatutakotik kanpo geratzen dira, eta aurreko 5 apartatuan jasotakoa aplikatuko zaie.

***16. artikulua.***– Diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak.

1.– Foru Aldundiaren eta foru organismo autonomoen esparruan, Diputatuen Kontseiluak onartuko ditu diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak.

2.– Diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak honako alderdiak zehaztuko ditu, besteak beste:

a) Diru laguntzaren xedearen definizioa.

b) Pertsona onuradunek eta, kasuan kasu, foru arau honen 10. artikuluko 2 apartatuan eta 3 apartatuaren bigarren paragrafoan jasotako entitateetako kideek diru laguntzak jasotzeko bete behar dituzten betekizunak, eta eskaerak aurkezteko era eta epea.

c) Foru arau honen 11.2 artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoek kaudimenari dagokionez bete behar dituzten baldintzak.

d) Diru laguntza emateko prozedura.

e) Diru laguntza emateko irizpide objektiboak eta, kasuan kasu, irizpideon haztapena lehiakortasun sistemaren bidez eman beharreko diru laguntzeei dagokienez.

Dirulaguntza emateko irizpideen artean diruz lagundutako proiektuan edo jarduketan genero ikuspegia nola dagoen txertatua baloratuko duen irizpide bat sartuko da, beti ere, egokia bada diru laguntzaren xedearekin.

f) Diru laguntzaren banakako zenbatekoa edo zenbateko hori zehazteko irizpideak.

g) Diru laguntza emateko prozedura hasi, bideratu eta ebazteko organo eskudunak, eta ebazpena jakinarazteko epea.

h) Zein epetan eta nola justifikatuko duen pertsona onuradunak edo, hala bada, entitate laguntzaileak be-

6.– Cuando las entidades colaboradoras sean personas sujetas a derecho privado, se seleccionarán previamente mediante un procedimiento sometido a los principios de publicidad, concurrencia, igualdad y no discriminación, y la colaboración se formalizará mediante convenio, salvo que por objeto de la colaboración resulte de aplicación plena el texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por el Real Decreto Legislativo 2/2000, de 16 de junio.

El contrato, que incluirá necesariamente el contenido mínimo previsto en el apartado 3 de este artículo, así como el que resulte preceptivo de acuerdo con la normativa reguladora de los contratos administrativos, deberá hacer mención expresa al sometimiento del contratista al resto de las obligaciones impuestas a las entidades colaboradoras por esta Norma Foral.

Se exceptúa de lo dispuesto en este apartado a las sociedades mercantiles públicas, a las que será de aplicación lo dispuesto en el apartado 5 anterior.

***Artículo 16.***– Bases reguladoras de la concesión de las subvenciones.

1.– En el ámbito de la Diputación Foral y de los organismos autónomos forales, el Consejo de Diputados aprobará las bases reguladoras de la concesión de subvenciones.

2.– La norma reguladora de las bases de concesión de las subvenciones concretará, entre otros, los siguientes extremos:

a) Definición del objeto de la subvención.

b) Requisitos que deberán reunir las personas beneficiarias para la obtención de la subvención, y, en su caso, los miembros de las entidades contempladas en el apartado 2 y segundo párrafo del apartado 3 del artículo 10 de esta Norma Foral, y forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.

c) Condiciones de solvencia que hayan de reunir las personas jurídicas a las que se refiere el apartado 2 del artículo 11 de esta Norma Foral.

d) Procedimiento de concesión de la subvención.

e) Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención y, en su caso, ponderación de los mismos con relación a las subvenciones a conceder en régimen de concurrencia competitiva.

Entre los criterios de concesión, y siempre que sea adecuado al objeto de la subvención, se incluirá uno que valore la integración de la perspectiva de género en el proyecto o actividad subvencionada.

f) Cuantía individualizada de la subvención o criterios para su determinación.

g) Órganos competentes para la iniciación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención y el plazo en que será notificada la resolución.

h) Plazo y forma de justificación por parte de la persona beneficiaria o de la entidad colaboradora, en su ca-

harkizun eta baldintzak betetzen dituela, diru laguntza emateko aintzat hartutako jarduera egin edo jokaera hartu dela, eta jasotako fondoak behar bezala aplikatu direla.

i) Organo emailearen alde zilegi irizten diren berme neurriak, horiek eratzeko bideak eta deuseztatzeko prozedura.

j) Ordainketa aurreratuak eta konturako abonuak egiteko aukera, eta pertsona onuradunek beharrezkoa izanez gero aurkeztu beharreko bermeen araubidea.

Ordainketa aurreratuak bermerik eratu gabe egin ahal izatea behar den eran justifikatu beharko da.

k) Diru laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzeagatik, ebazpena bera aldatzea ekar lezaketen zirkunstantziak.

l) Beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin duten bateragarritasuna edo bateraezintasuna, estatuko nahiz Europar Batasuneko beste edozein administrazio edo ente publiko zein pribatutatik edota nazioarteko organismoetatik datozenean eta helburu berberarekin emandakoak direnean.

m) Diru laguntzak ematean ezarritako baldintzak ez betetzea mailakatzeko irizpideak. Pertsona onuradunak jaso edo, hala bada, itzuli behar duen kopurua zehazteko aplikatuko dira mailakatze irizpideok, eta proportzionaltasun printzipioari jarraituko diote.

*17. artikulua.–* Diru laguntzen publizitatea.

1.– Organo emaileek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dituzte lehiakortasun sistemaren bidez emandako diru laguntzak, ondoko datuak adierazita: deialdia, pertsona onuraduna, emandako zenbatekoa, diru laguntzaren helburua edo helburuak, eta diru laguntza bakoitza aurrekontuko zein programa eta kredituri egozten zaion.

2.– Ondoko kasu hauetan ez da beharrezkoa izango diru laguntzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea:

a) Diru laguntza publikoa Gipuzkoako Aurrekontu Orokorretan izenduna denean.

b) Diru laguntza eta bere zenbatekoa pertsona onuradun jakin bati ematea foru arau batean edo lege mailako xedapen batean ezarrita dagoenean.

c) Emandako diru laguntzen zenbatekoak, banan-banan harturik, 3.000 eurotik beherakoak direnean edo, bestela, Gipuzkoako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak ekitaldi bakoitzerako ezartzen duen kopurura iristen ez direnean. Kasu honetan, oinarri arautzaileek bestelako prozedurak erabiltzea aurreikusi beharko dute, diru laguntzen ezaugarri berezien, zenbatekoen nahiz laguntza kopuruaren arabera, pertsona onuradunen publizitatea bermatzeko.

so, del cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad o la adopción del comportamiento para el que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.

i) Medidas de garantía que, en su caso, se considere preciso constituir a favor del órgano concedente, medios de constitución y procedimiento de cancelación.

j) Posibilidad de efectuar pagos anticipados y abonos a cuenta, así como el régimen de garantías que, en su caso, deberán aportar las personas beneficiarias.

La previsión de pagos anticipados sin la exigencia de la constitución de garantías deberá estar debidamente justificada.

k) Circunstancias que, como consecuencia de la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrán dar lugar a la modificación de la resolución.

l) Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

m) Criterios de graduación de los posibles incumplimientos de condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones. Estos criterios resultarán de aplicación para determinar la cantidad que finalmente haya de percibir la persona beneficiaria o, en su caso, el importe a reintegrar, y deberán responder al principio de proporcionalidad.

*Artículo 17.–* Publicidad de las subvenciones concedidas.

1.– Los órganos concedentes publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa las subvenciones concedidas bajo el régimen de concurrencia con expresión de la convocatoria, el programa y crédito presupuestario al que se imputen, persona beneficiaria, cantidad concedida y finalidad o finalidades de la subvención.

2.– No será necesaria la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de la concesión de las subvenciones en los siguientes supuestos:

a) Cuando las subvenciones públicas tengan asignación nominativa en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

b) Cuando su otorgamiento y cuantía, a favor de persona beneficiaria concreta, resulten impuestos en virtud de Norma Foral o norma de rango legal.

c) Cuando los importes de las subvenciones concedidas, individualmente consideradas, sean de cuantía inferior a 3.000 euros, o en su caso, a la señalada en la Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa de cada ejercicio. En este supuesto, las bases reguladoras deberán prever la utilización de otros procedimientos que, de acuerdo con sus especiales características, cuantía y número, aseguren la publicidad de las personas beneficiarias.

d) Diru laguntzaren xedeagatik, pertsona onuradunaren datuak argitaratzeak pertsona fisikoen ohorea eta intimitate pertsonal zein familiarra ez errespetatzea edo ez babestea ekar dezakeenean, hori guztia maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubideen babes zibilari buruzkoak, xedatzen duenaren indarrez.

3.– Onuradunek era egokian utzi beharko dute agerian diruz lagundutako programa, jarduera, inbertsio edo ekintzen finantzaketak izaera publikoa duela.

*18. artikulua.*– Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

1.– Diru laguntzaren araudi erregulatzaileak finantzaketa propioaren zenbateko bat exijitu ahal izango du diruz lagundutako jarduerari erantzuteko. Foru arau honen 29. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko da diruz lagundutako proiektu edo ekintzan fondo propioak jarri direla.

2.– Diru laguntzaren araudi erregulatzaileak zehaztuko du zenbaterainoko bateragarritasun edo bateraezintasun dagoen helburu bera duten beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk jasotzeko, izan edozein administraziorenak izan edozein ente publiko zein pribaturenak, hurrengo apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe.

3.– Diru laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

4.– Diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri arautzaileetan baimendutako kasuetatik kanpo diru laguntza hauekin batera bestelako ekarpenik jasoz gero, diru laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da hari buruzko araudi erregulatzailean ezarritakoaren arabera.

5.– Diru laguntzaren oinarri arautzaileetan aurreikusita badago, pertsona onuradunei ordaindutako fondoek sortzen dituzten finantza etekinek diru laguntzaren zenbatekoa gehituko dute, eta lagundutako jarduerarako erabiliko dira.

Apartatu hau ez da aplikatuko pertsona onuraduna herri administrazio bat denean.

a) Tratándose de bienes no inscribibles en un registro público, fueran sustituidos por otros que sirvan en condiciones análogas al fin para el que se concedió la subvención y este uso se mantenga hasta completar el periodo establecido, siempre que la sustitución haya sido autorizada por el órgano concedente.

b) Tratándose de bienes inscribibles en un registro público, el cambio de destino, enajenación o gravamen

dasuna besterentzea edo kargatzea baimentzen duenean. Kasu horretan, eskuratu duenak ondasunen helburua gainerako denborarako betetzea bere gain hartuko du eta, helburu-betebeharra ez badu betetzen, baita diru laguntzaren itzulketa ere.

6.– Diru laguntzei buruzko oinarriek ezarriko dituzte, hala badagokio, inbentarioan sar daitezkeen ondasunen amortizazioaren inguruan egokitzat hartzen diren arau bereziak. Hala ere, amortizazio gastuak diru laguntza jaso dezakeen gastutzat hartu ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira.

a) Diru laguntzek ondasunak erosten lagundu ez izana.

b) Amortizazioa eskuarki onarturiko kontabilitate arauekin bat etorriz kalkulatzea.

c) Kostua bakar-bakarrik diru laguntza jaso dezakeen epeari egokitzea.

7.– Diruz lagundutako proiektua egiteko finantza gastuak, zuzenbide edo finantza aholkularitzako gastuak, notario eta erregistro gastuak, eta peritu gastuak nahiz administrazioko gastu bereziak diruz lagungarriak izan daitezke subentzionatutako jarduerarekin zerikusi zuzena badute eta hura egoki prestatu edo gauzatzeko ezinbestekoak badira, betiere oinarri erregulatzaileetan hala jasotzen denean. Salbuespen modura, banku bermeei dagozkien gastuek ere jaso ahal izango dute diru laguntza, diru laguntzari buruzko arau erregulatzaileek aukera hori berariaz aurreikusten badute.

Inoiz ere ez dira diruz lagunduko:

a) Banku kontuetako interes zordunak.

b) Interes, errekargu eta zigor administratibo eta penalak.

c) Prozedura judizialetako gastuak.

8.– Zergak gastu diruz lagungarriak izan daitezke, diru laguntzaren onuradunak benetan ordaindu baditu. Zeharkako zergak ez dira inoiz diruz lagungarri izango berreskuratu edo konpentsatzeko gai direnean, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak.

9.– Zeharkako kostuei dagokienez, oro har onarturiko kontabilitate arau eta printzipioen arabera arrazoizkoa den zatia egotziko dio onuradunak lagundutako jarduerari, eta betiere kostu horiek jarduera benetan egiten den epeari dagozkion neurrian.

*31. artikulua.–* Diru laguntzak egiaztatzea.

1.– Diru laguntza eman duen organoak egiaztatuko du diru laguntzaren zuritzea egokia izan ote den, eta diru laguntza emateko oinarrian izan zen jarduera gauzatu edota helburua bete ote den.

2.– Entitate laguntzaileak, hala badagokio, organo emailearen izenean eta beraren kontura egingo ditu foru arau honen 14. artikuluko 1 apartatuko b) letran aurreikusitako egiaztapenak.

sea autorizado por el órgano concedente. En este supuesto, la persona adquirente asumirá la obligación de destino de los bienes por el periodo restante y, en caso de incumplimiento de la misma, del reintegro de la subvención.

6.– Las bases reguladoras de las subvenciones establecerán, en su caso, las reglas especiales que se consideren oportunas en materia de amortización de los bienes inventariables. No obstante, el carácter subvencionable del gasto de amortización estará sujeto a las siguientes condiciones:

a) Que las subvenciones no hayan contribuido a la compra de los bienes.

b) Que la amortización se calcule de conformidad con las normas de contabilidad generalmente aceptadas.

c) Que el coste se refiera exclusivamente al periodo subvencionable.

7.– Los gastos financieros, los gastos de asesoría jurídica o financiera, los gastos notariales y registrales y los gastos periciales para la realización del proyecto subvencionado y los de administración específicos son subvencionables si están directamente relacionados con la actividad subvencionada y son indispensables para la adecuada preparación o ejecución de la misma, y siempre que así se prevea en las bases reguladoras. Con carácter excepcional, los gastos de garantía bancaria podrán ser subvencionados cuando así lo prevea la normativa reguladora de la subvención.

En ningún caso serán gastos subvencionables:

a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

b) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

c) Los gastos de procedimientos judiciales.

8.– Los tributos son gasto subvencionable cuando la persona beneficiaria de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso se considerarán gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación, ni los impuestos personales sobre la renta.

9.– Los costes indirectos habrán de imputarse por la persona beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y siempre que tales costes correspondan al periodo en que efectivamente se realiza la actividad.

***Artículo 31.–*** Comprobación de subvenciones.

1.– El órgano concedente comprobará la adecuada justificación de la subvención, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

2.– La entidad colaboradora, en su caso, realizará, en nombre y por cuenta del órgano concedente, las comprobaciones previstas en la letra b) del apartado 1 del artículo 14 de esta Norma Foral.

## V. KAPITULUA AURREKONTU KUDEAKETAKO PROZEDURA

*32. artikulua.–* Gastua eta ordainketa onartzeko prozedura.

1.– Diru laguntzarako deialdia egin edo diru laguntza zuzenean eman baino lehen, gastua onartu beharko da, Gipuzkoako Finantza eta Aurrekontu Araubidearen Foru Arauan jasotakoaren arabera.

2.– Diru laguntza emateko ebazpenak gastu konpromisoa ekarriko du berarekin.

3.– Diru laguntza ordaindu baino lehen, onuradunak justifikatu egin behar du diru laguntza emateko arrazoi den jarduera, proiektu edo jokaera egin, burutu edo hartu duela, diru laguntzari buruzko araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikatu beharrekoak justifikatzen ez bada edo foru arau honen 35. artikuluan aurreikusitako arrazoietako baten bat gertatzen bada, diru laguntza osoa edo haren zati bat kobratzeko eskubidea galduko da.

4.– Konturako ordainketak egin ahal izango dira, diru-laguntzaren izaerak hartarako justifikazioa ematen badu. Gisa horretako abonamenduek ordainketa zatikatuak egitea ekar dezakete, diruz lagundutako ekintzak burutu ahala egingo direnak; halakoetan, aurkezturiko justifikazioaren heineko kopuruak ordainduko dira.

Ordainketa aurreratuak ere egin daitezke, gastua zuritu aitzineko aurrerakin gisa, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa moduan.

Inoiz ere ezin izango da ordainketa aurreraturik egin onuradunen alde, konkurtsoaren adierazpena eskatu badute, edozein prozeduratan kaudimengabearen adierazpena jaso badute, konkurtsoaren adierazpena jaso badute, esku-hartze judizialaren menpean badaude edo Lege Konkurtsalaren arabera desgaituak gertatu badira konkurtsoa kalifikatzeko sententzian ezarritako desgaikuntza-epea amaitu gabe dagoelarik. Era berean, ezin izango da horrelakorik egin onuradunen porrota edo hartzekodun konkurtsoa deklaratzen bada, edozein prozeduratan kaudimengabe huts egintzat hartzen badira edo esku-hartze judizialari lotuak deklaratzen badira, kita eta itxoiteari edo ordainketa etenari buruzko espedientea hasi bada edo, azkenik, epaileak porrotaren edo hartzekodun konkurtsoaren aldeko eskaera aurkezten badu, harik eta, hala badagokio, onuradunak birgaitu arte.

Konturako ordainketak edo ordainketa aurreratuak egin ahal izateko eta, hala badagokio, berme araubidea ezartzeko, aukera hori berariaz jaso behar da diru laguntzari buruzko araudian.

## CAPÍTULO V DEL PROCEDIMIENTO DE GESTIÓN PRESUPUESTARIA

*Artículo 32.–* Procedimiento de aprobación del gasto y pago.

1.– Con carácter previo o simultáneo a la convocatoria de la subvención o la concesión directa de la misma, deberá efectuarse la aprobación del gasto en los términos previstos en la Norma Foral de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2.– La resolución de concesión de la subvención conllevará el compromiso del gasto correspondiente.

3.– El pago de la subvención se realizará previa justificación, por la persona beneficiaria, de la realización de la actividad, proyecto o adopción del comportamiento para el que se concedió, en los términos establecidos en la normativa reguladora de la subvención.

Se producirá la pérdida del derecho al cobro total o parcial de la subvención en el supuesto de falta de justificación o de concurrencia de alguna de las causas previstas en el artículo 35 de esta Norma Foral.

4.– Cuando la naturaleza de la subvención así lo justifique, podrán realizarse pagos a cuenta. Dichos abonos a cuenta podrán suponer la realización de pagos fraccionados que responderán al ritmo de ejecución de las acciones subvencionadas, abonándose por cuantía equivalente a la justificación presentada.

También se podrán realizar pagos anticipados que supondrán entregas de fondos con carácter previo a la justificación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención.

En ningún caso podrán realizarse pagos anticipados a las personas beneficiarias cuando se haya solicitado la declaración de concurso, hayan sido declaradas insolventes en cualquier procedimiento, se hallen declaradas en concurso, estén sujetas a intervención judicial o hayan sido inhabilitadas conforme a la Ley Concursal sin que haya concluido el periodo de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso, hayan sido declaradas en quiebra, en concurso de acreedores, insolvente fallido en cualquier procedimiento o sujeta a intervención judicial, haber iniciado expediente de quita y espera o de suspensión de pagos o presentado solicitud judicial de quiebra o de concurso de acreedores, mientras, en su caso, no fueran rehabilitadas.

La realización de pagos a cuenta o pagos anticipados, así como, en su caso, el régimen de garantías, deberán preverse expresamente en la normativa reguladora de la subvención.

Diru laguntza izendunetan eta zuzeneko diru laguntza banakakoetan, konturako aurrekontuak edo ordainketa aurreratuak egiteko beharrezkoa izango da behar bezala justifikatuta egotea, eta ez da bermeak eratzea exijituko.

5.– Zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez egunean ez dagoen bitartean, edo diru laguntza itzultzea bidezkoa dela dioen ebazpen baten ondorioz zordun den bitartean, ezin izango zaio diru laguntza ordaindu onuradunari.

Aurreko paragrafoan jasotakoa ez zaie aplikatuko Gipuzkoako gizarte zerbitzuen sistemak babestutako kolektiboetako pertsona fisikoei zuzenduta dauden diru laguntzei.

*33. artikulua.–* Ordainketak atxikitzea.

1.– Behin itzulketa prozedura hastea erabakita, kautelazko neurri gisa organo emaileak erabaki dezake pertsona onuradunari edo entitate laguntzaileari abonatzeko dauden kopuruen ordainketaren libramenduak etetea, ordura arte sortutako berandutza interesak ezarrita. Inoiz ere kopuru haiek ez dute gaindituko itzulketa espedientea hasteko proposamen edo ebazpenak jasotako zenbatekoa.

2.– Kautelazko neurri hori hartzekotan, ebazpen arrazoitua eman behar da, eta interesatuari jakinarazi behar zaio, errekurritzeko aukera desberdinen berri emanda.

3.– Nolanahi ere, etetea bidezkoa izango da kalte-ordaina lortzea ezinezkoa dela aurreikusten lagundu dezaketen arrazoizko zantzurik badago edo kalte-ordaina bertan behera geratu edo neurri handi batean oztopatuta geratu badaiteke eta, bereziki, jasotzaileak bere ondasunak ezkutatu, kargatu edo erabiltzen baditu.

4.– Aurreko edozein kasutan, ordainketa atxikipenak zuzenbide arau hauei jarraituko die:

a) Lortu nahi den helburuarekin proportzionala izan behar da, eta inoiz ere ez da atxikipenik egin behar konpontzen zailak edo ezinezkoak diren ondorioak sortu baditzake.

b) Harik eta itzulketa espedienteari amaiera ematen dion ebazpena eman arte iraun behar du, eta ezin du gainditu tramitaziorako gehieneko denbora, luzapenak barne.

c) Aurreko paragrafoan jasotakoa jasota ere, atxikipena kendu behar da hori sortu zuten zirkunstantziak desagertzen direnean edo interesatuak kautelazko neurri horren ordez nahikotzat hartzen den bermea eratzea proposatzen duenean.

En las subvenciones nominativas y en las subvenciones directas que sean individualizadas, la realización de pagos a cuenta o pagos anticipados sin la exigencia de constitución de garantías, deberá estar debidamente justificada.

5.– No podrá realizarse el pago de la subvención en tanto la persona beneficiaria no se halle al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, o sea deudora por resolución de procedencia de reintegro.

No será aplicable lo dispuesto en el párrafo anterior a las subvenciones dirigidas a personas físicas integradas en los colectivos protegidos por el sistema de servicios sociales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*Artículo 33.–* Retención de pagos.

1.– Una vez acordado el inicio del procedimiento de reintegro, como medida cautelar, el órgano concedente puede acordar la suspensión de los libramientos de pago de las cantidades pendientes de abonar a la persona beneficiaria o entidad colaboradora, sin superar, en ningún caso, el importe que fijen la propuesta o resolución de inicio del expediente de reintegro, con los intereses de demora devengados hasta aquel momento.

2.– La imposición de esta medida cautelar debe acordarse por resolución motivada, que debe notificarse a la persona interesada, con indicación de los recursos pertinentes.

3.– En todo caso, procederá la suspensión si existen indicios racionales que permitan prever la imposibilidad de obtener el resarcimiento, o si éste puede verse frustrado o gravemente dificultado, y, en especial, si la persona perceptora realiza actos de ocultación, gravamen o disposición de sus bienes.

4.– La retención de pagos estará sujeta, en cualquiera de los supuestos anteriores, al siguiente régimen jurídico:

a) Debe ser proporcional a la finalidad que se pretende conseguir y, en ningún caso, debe adoptarse si puede producir efectos de difícil o imposible reparación.

b) Debe mantenerse hasta que se dicte la resolución que ponga fin al expediente de reintegro y no puede superar el periodo máximo que se fije para su tramitación, incluidas prórrogas.

c) No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, debe levantarse cuando desaparezcan las circunstancias que la originaron o cuando la persona interesada proponga la sustitución de esta medida cautelar por la constitución de una garantía que se considere suficiente.

II. TITULUA

DIRU LAGUNTZAK ITZULTZEA

I. KAPITULUA
DIRU LAGUNTZEN ITZULKETA

*34. artikulua.–* Diru laguntza emateko ebazpena baliogabetzea.

1.– Diru laguntza emateko ebazpena baliogabetzeko arrazoi hauek daude:

a) Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 62.1 artikuluan jasotakoak.

b) Kreditu eza edo eskasia, Gipuzkoako Finantza eta Aurrekontu Araubidearen Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

2.– Diru laguntza emateko ebazpenaren baliogabetze arrazoiak izango dira lege antolamenduaren gainerako urraketak eta, bereziki, foru arau honetan bildutako arauenak egitea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 63. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– Diru laguntza emateko egintzan, aurreko apartatuetan aipatutako arau urraketetakoren bat gertatzen denean, organo emaileak hura ofizioz berriro aztertuko du, edo, hala badagokio, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 102. eta 103. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, kaltegarritasuna deklaratu eta ondoren haren aurka joko du.

4.– Jasotako kopuruak itzuli beharra ekarriko du administrazioaren edo epaitegiaren baliogabetasun edo baliogabetze adierazpenak.

5.– Ondorengo artikuluan aipatuko diren itzulketa egiteko arrazoietarikoren bat gertatzen denean, Administrazioak ez du ofizioz berrikusiko diru laguntza emateko egintza.

*35. artikulua.–* Itzultzeko arrazoiak.

1.– Jasotako diru kopuruak itzuli egin beharko dira, eta berandutza interesa eskatuko da, diru laguntza ordaintzen denetik itzuli beharra erabakitzen denera artekoa, hain zuzen ere, honako hauek gertatzen badira:

a) Diru laguntza eskuratzea horretarako ezarrita dauden baldintzak faltsutuz edo eskuratze hori galaraziko luketen baldintzak ezkutatuz.

b) Diru laguntza emateko oinarrian dagoen jarduera, proiektua edo jokabidea osorik edo zati batean ez betetzea.

TÍTULO II

DEL REINTEGRO DE SUBVENCIONES

CAPÍTULO I
DEL REINTEGRO

*Artículo 34.–* Invalidez de la resolución de concesión.

1.– Son causas de nulidad de la resolución de concesión:

a) Las indicadas en el artículo 62.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

b) La carencia o insuficiencia de crédito, de conformidad con lo establecido en la Norma Foral de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2.– Son causas de anulabilidad de la resolución de concesión las demás infracciones del ordenamiento jurídico, y, en especial, de las reglas contenidas en esta Norma Foral, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 63 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– Cuando el acto de concesión incurriera en alguno de los supuestos mencionados en los apartados anteriores, el órgano concedente procederá a su revisión de oficio o, en su caso, a la declaración de lesividad y ulterior impugnación, de conformidad con lo establecido en los artículos 102 y 103 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– La declaración judicial o administrativa de nulidad o anulación llevará consigo la obligación de devolver las cantidades percibidas.

5.– No procederá la revisión de oficio del acto de concesión cuando concurra alguna de las causas de reintegro contempladas en el artículo siguiente.

*Artículo 35.–* Causas de reintegro.

1.– Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los siguientes casos:

a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquéllas que lo hubieran impedido.

b) Incumplimiento total o parcial de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención.

c) Jasotako diru laguntza zuritzeko obligazio ez betetzea edo modu nahikoan ez zuritzea, foru arau honetako 29. artikuluan eta, hala badagokio, diru laguntzari buruzko arauetan xedatutakoaren arabera.

d) Foru arau honen 17. artikuluko 3 apartatuan jasotako hedatze neurriak hartzeko obligazioa ez betetzea.

e) Foru arau honen 13. eta 14. artikuluetan aurreikusitako diru laguntzen egiaztapeneko eta kontrol finantzarioko lanen aurka egiten bada, aitzakiak nahiz oztopoak jartzen bazaizkie, edo uko egiten bazaie, baita ere kontabilitate, erregistro edo agirien kontserbazio beharrak betetzen ez badira, horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako funtsak zertan erabili diren edo zein diren diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna; era berean, edozein administraziok edo ente publikok nahiz pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak izan, helburu bera lortzeko diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak ematen baditu.

f) Foru Aldundiak edo foru organismo autonomoek entitate laguntzaileei eta pertsona onuradunei ezarritako obligazioak betetzen ez badira, ezta diru laguntza ematearekin batera horiek bereganatuko konpromisoak ere, betiere diru laguntza erabiltzeko erari eragiten diotenean edo hari buruzkoak direnean, hau da, jarduera egiteko erari, proiektua gauzatzeko erari edota diru laguntza ematea funtsatzen duen jokabidea hartzeko erari buruzkoak.

g) Foru Aldundiak edo foru organismo autonomoek entitate laguntzaileei eta pertsona onuradunei ezarritako obligazioak betetzen ez badira, ezta diru laguntza ematearekin batera horiek bereganatu dituzten aurrekoez besteko konpromisoak ere, horren ondorioz ezin denean egiaztatu jasotako fondoak zertan erabili diren edo zeintzuk diren diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna eta, era berean, edozein administraziok edo ente publikok nahiz pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak izan, helburu bera lortzeko diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak ematen dituenean.

h) Europar Batasunaren Itunaren 87. artikulutik 89.era bitartean xedatutakoaren arabera, diru laguntza itzuli beharra dakarren erabakia hartzen denean.

i) Diru laguntzari buruzko araudian xedatutako gainerako kasuetan.

2.– Onuradunaren edo, hala badagokio, entitate laguntzailearen konplimendu maila erabateko betetzemailara nabarmen hurbiltzen denean eta haiek beren konpromisoak betetzeko zalantzarik gabeko jarduna egiaztatzen dutenean, foru arau honen 16. artikuluko 2 apartatuaren m) letran aipatutako irizpideak ezarriz zehaztutako kopurua itzuli beharko dute.

c) Incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente, en los términos establecidos en el artículo 29 de esta Norma Foral, y en su caso, en las normas reguladoras de la subvención.

d) Incumplimiento de la obligación de adoptar las medidas de difusión contenidas en el apartado 3 del artículo 17 de esta Norma Foral.

e) Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero de subvenciones, previstas en los artículos 13 y 14 de esta Norma Foral, así como el incumplimiento de las obligaciones contables, registrales o de conservación de documentos cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

f) Incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Diputación Foral o los organismos autónomos forales a las entidades colaboradoras y personas beneficiarias, así como de los compromisos asumidos por éstas, con motivo de la concesión de la subvención, siempre que afecten o se refieran al modo en que se ha de realizar la actividad, ejecutar el proyecto o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

g) Incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Diputación Foral o los organismos autónomos forales a las entidades colaboradoras y personas beneficiarias, así como de los compromisos asumidos por éstas, con motivo de la concesión de la subvención, distintos de los anteriores, cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

h) La adopción, en virtud de lo establecido en los artículos 87 a 89 del Tratado Constitutivo de la Comunidad Europea, de una decisión de la cual se derive una necesidad de reintegro.

i) En los demás supuestos previstos en la normativa reguladora de la subvención.

2.– Cuando el cumplimiento por la persona beneficiaria o, en su caso, entidad colaboradora, se aproxime de modo significativo al cumplimiento total y se acredite por ésta una actuación inequívocamente tendente a la satisfacción de sus compromisos, la cantidad a reintegrar vendrá determinada por la aplicación de los criterios enunciados en la letra m) del apartado 2 del artículo 16 de esta Norma Foral.

3.– Era berean, foru arau honek 18. artikuluaren 3 apartatuan jasotako kasuan, diruz lagundutako kostuaren gainean lortutako soberakina itzuli beharko da, eta berandutza interesa exijituko da.

*36. artikulua.–* Itzuli beharreko kredituen eta horiek exijitzeko prozeduren izaera.

1.– Itzultzeko kopuruak izaera publikoko eskubidetzat joko dira, eta, haiek kobratzeko orduan, Gipuzkoako Finantza eta Aurrekontu Araubidearen Foru Arauak xedatutakoa aplikatuko da.

2.– Diru laguntzen arloko berandutza interesa izango da hori exijigarri den epean indarrean dagoen diruaren legezko interesa, non eta foru arau bidez ez den finkatzen bestelakoren bat.

3.– Europar Batasunaren fondoen itzulketen helburuei Batasuneko araudiak kasu bakoitzean xedatutako tratamendua emango zaie.

4.– Diru laguntzak itzultzeko prozedura guztiek izaera administratiboa izango dute.

*37. artikulua.–* Preskribatzea.

1.– Administrazioak itzulketa onartu edo likidatzeko duen eskubidearen preskripzio epea lau urtekoa izango da.

2.– Kasu bakoitzean honela konputatuko da epea:

a) Pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak justifikazioa aurkezteko epea amaitu denetik.

b) Diru laguntza ematen den unetik, foru arau honetako 29. artikuluaren 7 apartatuan xedatutako kasuan.

c) Pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak epe jakin baterako gorde beharreko edo eutsi beharreko baldintzak edo betebeharrak ezarriz gero, epe hori amaitu den unetik.

3.– Preskripzio epearen konputua eten egingo da, arrazoi hauengatik:

a) Administrazioak itzulketa-arrazoietarikoren bat ote dagoen egiaztatzeko xedeaz egindako edozein egintzarengatik, pertsona onuraduna edo entitate laguntzailea egintza horretaz formalki jabetuta egonik.

b) Edozein motatako errekurtsoak jartzeagatik, erruduntasun-testigantza jurisdikzio penalari igortzeagatik edo Ministerio Fiskalari salaketa aurkezteagatik, bai eta errekurtso horien barruan pertsona onuradunari edo entitate laguntzaileari formalki jakinarazita egiten diren jarduketengatik.

c) Pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak, diru laguntza edo itzulketa likidatzeko xedeaz, egindako edozein jardun sinesgarrirengatik.

3.– Igualmente, en el supuesto contemplado en el apartado 3 del artículo 18 de esta Norma Foral procederá el reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada, así como la exigencia del interés de demora correspondiente.

*Artículo 36.–* Naturaleza de los créditos a reintegrar y de los procedimientos para su exigencia.

1.– Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de derechos de naturaleza pública, resultando de aplicación para su cobranza lo previsto en la Norma Foral de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2.– El interés de demora aplicable en materia de subvenciones será el interés legal del dinero, vigente a lo largo del periodo en que aquél resulte exigible, salvo que por Norma Foral se establezca otro diferente.

3.– El destino de los reintegros de los fondos de la Unión Europea tendrá el tratamiento que en su caso determine la normativa comunitaria.

4.– Los procedimientos para la exigencia del reintegro de las subvenciones tendrán siempre carácter administrativo.

*Artículo 37.–* Prescripción.

1.– Prescribirá a los cuatro años el derecho de la Administración a reconocer o liquidar el reintegro.

2.– Este plazo se computará, en cada caso:

a) Desde el momento en que venció el plazo para presentar la justificación por parte de la persona beneficiaria o entidad colaboradora.

b) Desde el momento de la concesión, en el supuesto previsto en el apartado 7 del artículo 29 de esta Norma Foral.

c) En el supuesto de que se hubieran establecido condiciones u obligaciones que debieran ser cumplidas o mantenidas por parte de la persona beneficiaria o entidad colaboradora durante un periodo determinado de tiempo, desde el momento en que venció dicho plazo.

3.– El cómputo del plazo de prescripción se interrumpirá:

a) Por cualquier acción de la Administración, realizada con conocimiento formal de la persona beneficiaria o de la entidad colaboradora, conducente a determinar la existencia de alguna de las causas de reintegro.

b) Por la interposición de recursos de cualquier clase, por la remisión del tanto de culpa a la jurisdicción penal o por la presentación de denuncia ante el Ministerio Fiscal, así como por las actuaciones realizadas con conocimiento formal de la persona beneficiaria o de la entidad colaboradora en el curso de dichos recursos.

c) Por cualquier actuación fehaciente de la persona beneficiaria o de la entidad colaboradora conducente a la liquidación de la subvención o del reintegro.

*38. artikulua.*– Dirua itzultzera behartuak.

1.– Foru arau honen 35. artikuluan jasotako kasuetan, pertsona onuradunek eta entitate laguntzaileek jaso dituzten kopuruak eta kopuru horiei dagozkien berandutza interesak itzuli beharko dituzte, oso-osorik edo zati batean, foru arau honen 30. artikuluko 5 apartatuaren b) letran xedatutakoa eragotzi gabe. Betebehar horrek ez du zer ikusirik izango, hala badagokio, ezar daitezkeen zigorrekin.

2.– Foru arau honetako 10. artikuluaren 2 apartatuan eta 3 apartatuaren bigarren paragrafoan aipatutako pertsona edo entitateetako kideak onuradunaren itzulketa egiteko betebeharraren erantzule solidarioak izango dira, diru laguntza jaso eta egiteko konpromisoa hartu zuten jarduerei dagokienez.

Onuradunaren legezko ordezkariak izango dira, hark jarduteko gaitasunik ez duenean, itzulketa egiteko betebeharraren erantzule solidarioak.

Foru arau honen 10. artikuluko 3 apartatuan aipatu entitateetako kide, partaide edo titularkideak izango dira diru zigorraren erantzule solidarioak, nork bere partaidetzaren araberako proportzioan, ondasun komunitateak edo beste edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bananduak direnean.

3.– Dirua itzultzeko obligazioaren erantzule izango dira subsidiarioki merkataritza-sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak, urratutako obligazioak betetzeko beren ardurapeko beharrezko ekintzak egiten ez badituzte, ez betetzea gertagarri egiteko erabakiak hartzen badituzte edota beren mendekoen ez-betetzeari leku ematen badiote.

Halaber, jarduerei utzitako pertsona juridikoen lege ordezkaritza dutenek, aplikagarri zaizkien xedapen legal edo estatutarioen arabera, haiek itzultzeko betebeharraren erantzule izango dira subsidiarioki.

4.– Desegin edo likidatu diren sozietate edo entitateen kasuan, bete gabe dituzten itzulketa-betebeharrak kapitalean bazkide edo partaide diren pertsonei eskualdatuko zaizkie, eta horiek izango dira haien erantzule solidarioak, esleitu zaien likidazioaren kuotaren balioaren mugaraino.

5.– Itzulketa egin behar duena hiltzen bada, hark itzultzeko zituen zenbatekoak ordaintzeko betebeharra haren kausadunei eskualdatuko zaie, betiere zuzenbide zibil erkideak, foralak edo oinordetzari ezarri beharreko zuzenbide bereziak kasu jakin batzuetarako, bereziki inbentario onuraren arabera onartutako herentziaren kasurako, xedatutakoa eragotzi gabe.

*Artículo 38.*– Personas obligadas al reintegro.

1.– Las personas beneficiarias y entidades colaboradoras, en los casos contemplados en el artículo 35 de esta Norma Foral, deberán reintegrar la totalidad o parte de las cantidades percibidas más los correspondientes intereses de demora, sin perjuicio de lo dispuesto en la letra b) del apartado 5 del artículo 30 de esta Norma Foral. Esta obligación será independiente de las sanciones que, en su caso, resulten exigibles.

2.– Los miembros de las personas y entidades contempladas en el apartado 2 y en el segundo párrafo del apartado 3 del artículo 10 de esta Norma Foral responderán solidariamente de la obligación de reintegro de la persona beneficiaria con relación a las actividades subvencionadas que se hubieran comprometido a efectuar.

Responderán solidariamente de la obligación de reintegro los representantes legales de la persona beneficiaria cuando ésta careciera de capacidad de obrar.

Responderán solidariamente los miembros, partícipes o cotitulares de las entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 10 en proporción a sus respectivas participaciones, cuando se trate de comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado.

3.– Responderán subsidiariamente de la obligación de reintegro las personas que sean administradoras de las sociedades mercantiles, o quienes ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, que no realizasen los actos necesarios que fueran de su incumbencia para el cumplimiento de las obligaciones infringidas, adoptasen acuerdos que hicieran posibles los incumplimientos o consintieran el de quienes de ellos dependan.

Asimismo, las personas que ostenten la representación legal de las personas jurídicas, de acuerdo con las disposiciones legales o estatutarias que les sean de aplicación, que hayan cesado en sus actividades, responderán subsidiariamente en todo caso de las obligaciones de reintegro de éstas.

4.– En el caso de sociedades o entidades disueltas y liquidadas, sus obligaciones de reintegro pendientes se transmitirán a las personas que sean socias o partícipes en el capital que responderán de ellas solidariamente y hasta el límite del valor de la cuota de liquidación que se les hubiera adjudicado.

5.– En caso de fallecimiento de la persona obligada al reintegro, la obligación de satisfacer las cantidades pendientes de restitución se transmitirá a sus causahabientes, sin perjuicio de lo que establezca el derecho civil común, foral o especial aplicable a la sucesión para determinados supuestos, en particular para el caso de aceptación de la herencia a beneficio de inventario.

## II. KAPITULUA
## ITZULTZEKO PROZEDURA

*39. artikulua.–* Itzultze prozedura ebazteko eskumena.

1.– Laguntza eman duen organoak izango du eskumena pertsona onuradunari edo entitate laguntzaileari diru laguntzak itzul ditzan eskatzeko, kapitulu honetan arautuko prozeduraren ebazpenaren bidez, foru arau honetako 35. artikuluan diru itzulketarako xedatutako kasuren bat gertatzen dela ohartzen denean.

2.– Itzulketa erabaki dutenak Europar Batasuneko organoak badira, erabaki horiek betearazi beharko dituen organoak kudeatuko du errekurtsoa.

3.– Diru laguntza Europar Batasunak edo Batasuneko beste erakunde batek eman duenean, eta itzulketa egiteko betebeharra jarduketa horiek egiteko legezko gaitasuna eman zaien erakundeei dagokien fiskalizazio jardueraren ondorioz sortu bada, baina ez diru laguntzen kontrol finantzarioaren ondorioz, diru laguntzaren kudeaketa dagokion organoak hartu beharko du itzulketa egiteko erabakia. Administrazioak ofizioz, edo fondo publikoak fiskalizatzeko legezko gaitasuna eman zaien Administrazioko beste erakunde edo organo batzuek proposatuta, hartuko du erabaki hori.

*40. artikulua.–* Itzultzeko prozedura.

1.– Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VI. tituluan administrazio prozedurei buruz jasotzen diren xedapen orokorrak izango ditu gidari diru laguntzak itzultzeko prozedurak, betiere foru arau honetan eta hori garatzeko xedapenetan ezarritako berezitasunak eragotzi gabe.

2.– Diru laguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da organo eskudunak erabakia hartzean, bai horren ekimenez bai goragoko organo baten aginduz, beste organo batzuek egindako eskaera arrazoituaren bidez edo salaketa baten bidez. Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuak luzatutako kontrol finantzarioari buruzko txostenaren ondorioz ere hasiko da.

3.– Prozedura tramitatzean, nolanahi ere, entzuteko eskubidea bermatuko zaio interesatuari.

4.– Itzulketa prozedurari buruzko ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea 12 hilabetekoa izango da, hastea erabaki denetik aurrera. Epe hori eten edo luzatu egin daiteke, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42. artikuluko 5 eta 6 apartatuetan xedatutakoaren arabera.

Ebazpena emateko epea igarotzen baldin bada berariazko ebazpenik eman gabe, prozedura iraungita geldituko da, hura amaitu arteko jarduerei jarraitzea baz-

## CAPÍTULO II
## DEL PROCEDIMIENTO DE REINTEGRO

*Artículo 39.–* Competencia para la resolución del procedimiento de reintegro.

1.– El órgano concedente será el competente para exigir de la persona beneficiaria o entidad colaboradora el reintegro de subvenciones mediante la resolución del procedimiento regulado en este capítulo, cuando aprecie la existencia de alguno de los supuestos de reintegro de cantidades percibidas establecidos en el artículo 35 de esta Norma Foral.

2.– Si el reintegro es acordado por los órganos de la Unión Europea, el órgano a quien corresponda la gestión del recurso ejecutará dichos acuerdos.

3.– Cuando la subvención haya sido concedida por la Comisión Europea u otra institución comunitaria, y la obligación de restituir surgiera como consecuencia de la actuación fiscalizadora, distinta del control financiero de subvenciones regulado en la Norma Foral de Régimen Financiero y Presupuestario, correspondiente a las instituciones habilitadas legalmente para la realización de estas actuaciones, el acuerdo de reintegro será dictado por el órgano gestor competente de la subvención. El mencionado acuerdo se dictará de oficio o a propuesta de otras instituciones y órganos de la Administración habilitados legalmente para fiscalizar fondos públicos.

*Artículo 40.–* Procedimiento de reintegro.

1.– El procedimiento de reintegro de subvenciones se regirá por las disposiciones generales sobre procedimientos administrativos contenidas en el título VI de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de las especialidades que se establecen en esta Norma Foral y en sus disposiciones de desarrollo.

2.– El procedimiento de reintegro de subvenciones se iniciará de oficio por acuerdo del órgano competente, bien por propia iniciativa, bien como consecuencia de orden superior, a petición razonada de otros órganos o por denuncia. También se iniciará a consecuencia del informe de control financiero de subvenciones emitido por el Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas.

3.– En la tramitación del procedimiento se garantizará el derecho del interesado a la audiencia.

4.– El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento de reintegro será de 12 meses desde la fecha del acuerdo de iniciación. Dicho plazo podrá suspenderse y ampliarse de acuerdo con lo previsto en los apartados 5 y 6 del artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Si transcurre el plazo para resolver sin que se haya notificado resolución expresa, se producirá la caducidad del procedimiento, sin perjuicio de continuar las actua-

tertu gabe eta iraungipena etentzat hartu gabe aipatutako epe hori amaitu bitartean egindako jardueren indarrez.

*41. artikulua.*– Jarduketak koordinatzea.

Diru laguntzen jasotzaileek fondoei emandako aplikazioaz organo kudeatzaileak erabakia emanik ere, horrek ez du baztertuko Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuaren kontrol finantzarioko organoek jarduketak egiteko aukera.

III. TITULUA

DIRU LAGUNTZEN ARLOKO URRAKETA ETA ZIGOR ADMINISTRATIBOAK

I. KAPITULUA
URRAKETA ADMINISTRATIBOAK

*42. artikulua.*– Urraketa zen den.

Foru arau honetan tipifikatutako ekintzak eta omisioak dira diru laguntzen arloko urraketa administratiboak, eta halakoak zigortu daitezke, baita delako urraketa zabarkeria hutsa bada ere.

*43. artikulua.*– Erantzuleak.

Foru arau honetan urraketatzat hartutako kasuetan —dela ekintzaz dela omisioz— sartutako pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak nahiz pribatuak, eta foru arau honetako 10. artikuluaren 3 apartatuan aipatu nortasunik gabeko entitateak izango dira diru laguntzen arloko urraketa administratiboen erantzuleak; bereziki honako hauek:

a) Diru laguntzen onuradunak, baita foru arau honen 10. artikuluko 2 apartatuan eta 3 apartatuaren bigarren paragrafoan aipatutako pertsona edo entitateetako kideak, egiteko konpromisoa hartu duten eta diruz lagunduta dauden jarduerei dagokienez.

b) Entitate laguntzaileak.

c) Jarduteko gaitasunik ez duten onuradunen legezko ordezkaria.

d) Diru laguntzaren xedearekin edo haren justifikazioarekin zerikusia duten pertsona edo entitateak; horiek behartuta daude laguntza ematera eta Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuan diru laguntzen kontrol finantzarioa egiteko eskumena duten organoek eskatzen dieten dokumentazio osoa aurkeztera, Finantza eta Aurrekontu Araubidearen Foru Arauak jasotakoaren arabera.

*44. artikulua.*– Erantzukizunetatik salbuesteko kasuak.

Foru arau honek tipifikatutako ekintzek edo omisioek ez dute erantzukizunik ekarriko diru laguntzen arloko urraketa administratiboarengatik kasu hauetan:

ciones hasta su terminación y sin que se considere interrumpida la prescripción por las actuaciones realizadas hasta la finalización del citado plazo.

*Artículo 41.*– Coordinación de actuaciones.

El pronunciamiento del órgano gestor respecto a la aplicación de los fondos por los perceptores de subvenciones se entenderá sin perjuicio de las actuaciones de control financiero de subvenciones que competen al Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas.

TÍTULO III

INFRACCIONES Y SANCIONES ADMINISTRATIVAS EN MATERIA DE SUBVENCIONES

CAPÍTULO I
DE LAS INFRACCIONES ADMINISTRATIVAS

*Artículo 42.*– Concepto de infracción.

Constituyen infracciones administrativas en materia de subvenciones, las acciones y omisiones tipificadas en esta Norma Foral y serán sancionables incluso a título de simple negligencia.

*Artículo 43.*– Responsables.

Serán responsables de las infracciones administrativas en materia de subvenciones las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, así como los entes sin personalidad a los que se refiere el apartado 3 del artículo 10 de esta Norma Foral, que por acción u omisión incurran en los supuestos tipificados como infracciones en esta Norma Foral y, en particular, las siguientes:

a) Las personas beneficiarias de subvenciones, así como los miembros de las personas o entidades contempladas en el apartado 2 y segundo párrafo del apartado 3 del artículo 10 de esta Norma Foral, en relación con las actividades subvencionadas que se hubieran comprometido a realizar.

b) Las entidades colaboradoras.

c) La persona que sea la representante legal de las personas beneficiarias de subvenciones que carezcan de capacidad de obrar.

d) Las personas o entidades relacionadas con el objeto de la subvención o su justificación, obligadas a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos competentes para el ejercicio del control financiero de subvenciones del Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas, de conformidad con lo previsto en la Norma Foral de Régimen Financiero y Presupuestario.

*Artículo 44.*– Supuestos de exención de responsabilidades.

Las acciones u omisiones tipificadas en esta Norma Foral no darán lugar a responsabilidad por infracción administrativa en materia de subvenciones en los siguientes supuestos:

a) Jarduteko ahalmenik ez dutenek egiten dituztenean.

b) Ezinbesteko kasua gertatzen denean.

c) Erabaki kolektibo batetik datozenean, hura onartu zenean beren botoa salbuetsi edo bilerara joan ez ziren haientzat.

*45. artikulua.–* Jarduketak eta zigor auzien jurisdikzioa aldi berean gertatzea.

1.– Ustez delitua izan daitekeen urraketa egiten denean, Administrazioak urratzaileari darion errua jurisdikzio eskudunera eramango du eta zigor prozedura alde batera utziko du aginte judizialak epai irmoa eman, jarduketak largetsi nahiz artxibatu, edo Ministerio Fiskalak espedientea itzuli bitartean.

2.– Aginte judizialak jarritako zigorrak administrazio zigorra baztertuko du.

3.– Delitua gertatu dela iritzi ezean, Administrazioak zigor espedientea hasi edo horrekin jarraituko du auzitegiek frogatutzat eman dituzten gertaeretan oinarrituta.

*46. artikulua.–* Urraketa arinak.

Foru arau honetan eta diru laguntzei buruzko oinarrietan jasotako obligazioak ez betetzea urraketa arina izango da, baldin eta ez-betetze hori urraketa larri edo oso larria ez bada eta zigorra mailakatzeko osagai gisa erabiltzen ez bada. Bereziki, jokabide hauek izango dira urraketa arinak:

a) Jasotako fondoei emandako aplikazioa frogatzen duten kontuak epez kanpo aurkeztea.

b) Gastuak frogatzen dituzten kontuak zehaztu gabe edo osatu gabe aurkeztea.

c) Artikulu honetako gainerako paragrafoetan berariaz aipatuta ez egon arren, diru laguntzaren etenaren ondorioz bereganatutako obligazio formalak arau bidez ezarritakoaren arabera ez betetzea.

d) Kontabilitate edo erregistroari buruzko obligazioak ez betetzea, eta bereziki hauek:

1. Legez eskatutako kontabilitate eta erregistroetan eragiketa bat edo batzuk ez zehaztea edo alde batera uztea.

2. Legez eskatutako kontabilitate eta erregistroak, horien euskarri diren programa eta artxibo informatikoak eta erabilitako kodeketa-sistemak eraman edo gorde behar izatearen obligazioa ez betetzea.

3. Kontabilitateak entitatearen benetako egoera ezagutzea oztopatzeko moduan eramatea, jarduera eta ekitaldi ekonomiko berean.

4. Izaeraren arabera dagokienaz besteko helburuaz kontuak erabiltzea, diruz lagundutako jardueren errealitatea egiaztatzea eragozteko asmoz.

a) Cuando se realicen por quienes carezcan de capacidad de obrar.

b) Cuando concurra fuerza mayor.

c) Cuando deriven de una decisión colectiva, para quienes hubieran salvado su voto o no hubieran asistido a la reunión en que se tomó aquélla.

*Artículo 45.–* Concurrencia de actuaciones con el orden jurisdiccional penal.

